

ARAUDIA

1. Aurkezpena

Ganzabal Mendi Taldeak antolatzen ditu **Lemoatx Trail 2023** ekitaldiaren barruko mendi lasterketak eta martxak. Ekitaldi hori **azaroaren 19an** egiten da Lemoan (Bizkaia), eta Lehendakari Agirre kaleko 23an (Eguskitza Meabe Ikastetxe Publikoa) izaten du irteera zein helmuga.

Lemoa, Amorebieta-Etxano, Dima eta Igorre udalerrietako lurretatik pasatzen dira probak, Belatxikieta (661m), Lemoatxa (363m) eta Aspunta (365m) gailurretatik igarota.

Edertasun natural handiko lekuetatik igarotzen da (Urkiolako Parke Naturala, Legarmendi mendilerroa), baita balio historiko handikoetatik (azken gerra zibilean egindako lubakien eremua, Aranzadik eta Lemoako Udalak berreskuratuak).

2. Modalitateak eta kategoriak

Ekitaldiak lau proba ditu.

LEHIAKETA-MODALITATEA:

- Lasterketa luzea (24,2 km - 1300 metroko desnibel positiboa eta negatiboa)
- Lasterketa laburra (16,4 km - 910 metroko desnibel positiboa eta negatiboa)
 - Bai lasterketa luzean, bai laburrean, parte har dezakete **18 urtetik gorako pertsonak**, federatu zein federatu bakoak, baldin eta probaren egunean bertan urteak betetzen badituzte, edo beteta badituzte.
 - Lasterketa laburrean, parte har dezakete **16 eta 17 urteko pertsonak**, federatu edo federatu bakoak, baldin eta probaren egunean bertan urteak betetzen badituzte, edo beteta badituzte. Derrigorrean aurkeztu behar zaio antolakuntzari gurasoen edo legezko tutoreen baimena.
 - Lasterketetan kategoria bakarra izango da: **absolutua**. Luzean sailkapen bat izango da, eta laburrean beste bat. Sailkapen bakoitzaren barruan, **emakumezkoena eta gizonezkoena** bereiziko dira.

ARAUDIA

MODALITATE EZ LEHIAKORRA:

- Mendi martxa (24,2 km - 1300 metroko desnibel positiboa eta negatiboa)
 - Parte har dezakete **18 urtetik gorako** pertsonak, federatu zein federatu bakoak, baldin eta probaren egunean bertan urteak betetzen badituzte, edo beteta badituzte.
 - Parte har dezakete **16 eta 17 urteko** pertsonak, federatu edo federatu bakoak, baldin eta probaren egunean bertan urteak betetzen badituzte, edo beteta badituzte. Derrigorrean aurkeztu behar zaio antolakuntzari gurasoen edo legezko tutoreen baimena.
 - Parte har dezakete **16 urtetik beherako** pertsonak, federatu edo federatu bakoak. Derrigorrezkoa 16 urtetik beherako guztiak pertsona heldu batekin joatea. Pertsona heldu horrek idatziz hartuko du bere gain, dortsalak jasotzean erakundeak emandako dokumentuan, adin txikiko horien ardura.
- Lemoatx familian (8,3 km - 410 metroko desnibel positiboa eta negatiboa)
 - Adingabeei eta familiei zuzendutako mendi martxa, PR®-BI 56 «Lemoatxa 1937» ibilbidetik igarotzen dena. Derrigorrezkoa da **16 urtetik beherako** guztiak beti heldu batekin joatea. Heldu horrek idatziz hartuko du bere gain, dortsalak jasotzean erakundeak emandako dokumentuan, zein adingaberen ardura hartzen duen.

3. Lehiaketa modalitateko sariak

Emakumezkoen kategoria absolutua (24,2 km)

1. - txapela eta garaikurra
2. - garaikurra
3. - garaikurra

Gizonezkoen kategoria absolutua (24,2 km)

1. - txapela eta garaikurra
2. - garaikurra
3. - garaikurra

Emakumezkoen kategoria absolutua (16,4 km)

1. - txapela eta garaikurra
2. - garaikurra
3. - garaikurra

ARAUDIA

Gizonezkoen kategoria absolutua (16,4 km)

1. - txapela eta garaikurra
2. - garaikurra
3. - garaikurra

Emakumezkoen kategoria absolutua (24,2 km) - **Ganzabal** Mendi Taldeko bazkidea

- 1 - garaikurra

Gizonezkoen kategoria absolutua (24,2 km) - **Ganzabal** Mendi Taldeko bazkidea

- 1 - garaikurra

Emakumezkoen kategoria absolutua (16,4 km) - **Ganzabal** Mendi Taldeko bazkidea

- 1 - garaikurra

Gizonezkoen kategoria absolutua (16,4 km) - **Ganzabal** Mendi Taldeko bazkidea

- 1 - garaikurra

4. Izen-ematea eta plaza-kopurua

Izen-emate guztiak buscametas webgunearen bidez egin beharko dira:

<https://www.buscametas.com/modulos/ticket/evento.php?codigo=1104>

2023ko uztailaren 17ko 00:00etatik, 2023ko azaroaren 12ko 23:59ra arte.

Lau modalitateetako bakoitzak **250 parte-hartzaile** izango ditu gehienez; epea amaitu baino lehen betetzen bada gehienezko kupo hori, aldez aurretik itxiko dira izen-emateak. Ordainketa egin ondoren baino ez da balioztatuko inskripzioa.

Lau probetako edozeinetan izena emateak eskubidea ematen du proban parte hartzeko, RC aseguruia izateko, korrikalari-poltsa, kamiseta eta opariren bat lortzeko aukera izateko.

Ez da inola ere itzuliko inskripzioagatik ordaindutakoa, baina korrikalari-poltsa izateko eskubidea izango du.

Kamisetaren neurria soilik izango dute bermatuta **2023ko urriaren 3ko 23:59a arte** izena eman dutenek.

Behin izena emanda, ezin da proba aldatu. Dortsala pertsonala eta besterenezina da.

ARAUDIA

5. Prezioak

MODALITATEA	Federatuak	Federatu bakoak
Lasterketa luzea (24,2 km)	20€	25€
Lasterketa laburra (16,4 km)	15€	20€
Mendi martxa (24,2 km)	10€	12€
Mendi martxa familian (8,2 km)	8€	10€

6. Irteera ordutegiak

Mendi martxa (24,2 km) - 08:00etan

Lasterketa luzea (24,2 km) - 09:15ean

Lasterketa laburra (16,4 km) - 10:00etan

Mendi martxa familian (8,3 km) - 10:45ean

7. Hornidura guneak

5,6. km - (Aramotz): likidoa eta solidoa.


11,3. km - (Aramotz): likidoa eta solidoa.

16,0. km - (Tallerreta): likidoa eta solidoa.

18,2. km - (Lemoatxa): likidoa eta solidoa.

24,2. km - (Eskolak): likidoa eta solidoa.

- o Proben profila eta hornidura guneak.



ARAUDIA

8. Dortsalak ematea

Antolatzaileek horretarako prestatutako lekuan jasoko dira, proba bakoitza hasi baino ordubete lehenagotik.

Antolakuntzak adierazitako tokitik sartu beharko da, eta adierazitako jarraibideen arabera hartu (errenkadak, distantziak...)

Derrigorra izango da parte-hartzaile bakoitzaren **NANa edo antzeko dokumentua** aurkeztea. Federatuek federazioaren txartela aurkeztu beharko dute NANarekin edo antzeko dokumentuarekin batera.

9. Lehiaketako epaimahaia

Organo aholku-emailea da, eta proba garatzearen ondorioz sor daitezkeen erreklamazioei erantzuteko ardura du. Lasterketaren barruan erreklamazio bat egiten den unean egingo da organo horren deialdia, 15:00ak arte.

Epaimahaia erakundeko partaideek osatuko dute.

10. Parte-hartzaileen portaera orokorra

Mendi lasterketako parte hartzaileak behartuta daude antolakuntzak emandako **dortsala** eramatera. Proba osoan (**kamisetan**) ageriko lekuan eta aurrealdean joan behar da, eta ezin izango da ez tolestu ez ebaki.

Parte-hartzaileak behartuta daude arriskuan edo istripua izan duen beste pertsona bati **sorospena ematera**, eta gertuen dagoen kontrolari jakinarazi beharko diote berehala. Laguntzarik ez eskaintzeak probatik berehala kanporatzea ekarriko du.

Parte-hartzaile bakoitzaren betebeharra da **hondakinak** erakundeak adierazitako lekuetara eramatea.

Parte-hartzaileek une oro bete behar dituzte antolakuntzako kideen jarraibideak, ibilbide osoan zehar, betiere lehiaketa-araudia eta antolakuntzarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, probaren aurretik edo proba egin bitartean, antolakuntzak har ditzakeen aldaketak errespetatuz.

Parte-hartzailea erretiratzen bada, antolakuntzaren kontrol batean egin beharko du, hari abisua eman ez eta **dortsala entregatuz**; parte-hartzaileak bere gain hartuko du uzten duen unetik duen erantzukizun guztia.

24,2 km-ko mendi martxetan parte hartzen duten pertsonak **ezin dezakete txakur batek lagunduta** egin, martxa hori Urkiolako Parke naturalaren baitan dagoelako eta debeku hori araudiak jaso behar du. Lasterketetan ezin da txakurrekin korrika egin. 8,3 km-ko familiar mendi martxan parte hartuko duten pertsonak **txakur**

ARAUDIA

batekin lagunduta egin dezakete, baina txakurrak lotuta joan behar dute. Karreretan ezin da txakurrekin joan.

11. Seinaleztapena eta igarotze-kontrolak

Ibilbidea behar bezala seinaleztatuta dago, seinaleztapen-banderen, zinten eta antolatzaileek jarritako gainerako elementuen bidez. Parte-hartzaileek markatutako ibilbidea jarraitu beharko dute, eta boluntarioen jarraibideei kasu egin beharko diete une oro; ibilbidetik irteten den edo jarraibideak errespetatzen ez dituen oro lasterketatik bota daiteke, eta ekitaldiaren aseguruaren estalduratik kanpo gera daiteke.

Antolatzaileek **igarotze-kontrol** bat jarriko dute ibilbideko punturen batean; puntu horretatik igaro ez dena lasterketako sailkapenetik kanpo egongo da.

Proba bakoitzean **mozketa-ordutegiak** ezarriko dira, justifikazio bako atzerapenak saihesteko bakarrik, zeintzuek proba normaltasunez egiteko edota antolakuntzaren lana oztopatu dezaketen.

- **16,0 km – Tallerreta, 12:00etan**
- **18,2 km – Lemoatxa, 13:00etan**

Ordutegi horiek ekitaldiaren sare sozialetan argitaratuko dira, eta parte-hartzaile bakoitzak antolakuntzari ematen dion posta elektronikoan emango da horien berri.

12. Proba etetea edo baliogabetzea

Egoerak hala eskatzen badu, antolatzaileek proba eten dezakete ibilbideko puntu batean: kasu horretan, posizioak eta amaiera denborak **eten-puntuan hartuko dira**, edo, bestela, egindako azken kontrolean. Helmugaraino kontrolik ez badago, **helmugako denborak hartuko dira**.

Antolatzaileek ekitaldia **bertan behera uzteko eskubidea** izango dute, baldin eta arrazoi nahikorik balego.

13. Mediku zerbitzua

Antolatzaileek **anbulantzia** bat dute helmugan, eta lur orotako ibilgailu bat **Aramotz** inguruan, parte-hartzaileei arreta emateko. Edozein parte-hartzailek ezbeharren bat badu, edozein boluntariori abisua eman diezaioke laguntza eskatzeko eta, aldi berean, dagozkion zerbitzuei abisua emateko.

Antolatzaileek probak egin aurretik **mediku azterketa** bat egitea gomendatzen diete parte-hartzaileei, kirol-jarduerak egitetik eratorritako arriskua baitago.

ARAUDIA

14. Kontsigna eta duxak

Antolakuntzak **kontsigna zerbitzua** eskainiko die parte hartzaile guztiei, eta zerbitzu hori irteera/helmuga gunean eskainiko du.

Antolatzaileek dutxa zerbitzua eskainiko diete parte-hartzaile guztiei Lemoako udal kiroldegian, irteera/helmuga gunearen ondoan.

15. Segurtasuna

Antolatzaileek **bateria beteta** duen mugikor bat eramatea gomendatzen dute.

16. Lasterketa zuzendaritza

Ganzabal Mendi Taldeak, ekitaldiaren antolatzaile den aldetik, ekitaldiaren segurtasuna eta probaren burutze egokia zaintzeko behar diren argibide, aldaketa edo bestelako neurriak hartzeko ardura eta ahalmena izango du.

17. Irudi-eskubideak

Izena eman duten parte-hartzaile guztiek baimena ematen dute antolatzaileek hartutako **argazkiak eta bideoak argitaratzeko**. Ez da beharrezkoa paperik sinatzea baimena emateko. Puntu hori ez onartzeak proban parte hartzeko izena eman duen pertsona kanpoan uzten du.

Antolakuntza

